


30 urtetik gora Euskadiko gazteen lan baldintzek hobera egiten dute

Baina gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakalak hor dirau

30 eta 34 urte bitarteko langileen artean erdiak baino gehixeagok dute kontratu mugagabea (% 53,9) eta hiru urtetik gorako lan-antzinatasuna lantokian (% 57,1 %). 30 urtetik beherako langileen artean, aldiz, heren batek baino gehixeagok dute kontratu mugagabea (% 35,5) eta laurdena baino gutxiago dira lantokian hiru urteko lan-antzinatasuna dutenak (% 22,7).


16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko langile gazteek dituzten kontratu moten konparazioa (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Oro har, 30 eta 34 urte bitarteko langileek 30 urtetik beherakoek baino lanaldi osoko lan gehiago dituzte (% 79,8 eta % 69,4, hurrenez hurren), baina datu hori kontuz irakurri behar da. Sexuari erreparatuz gero ikus dezakegu 16 eta 29 urte bitarteko gizonen 30 eta 34 urteko emakumeek baino lanaldi osoko lan gehiago dituztela. Emakumeen artean 30 eta 34 urte bitartekoek badituzte 30 urtetik beherakoek baino lanaldi osoko lan gehiago.

Lanaldi osoko lana duten emakume eta gizon okupatuen arteko konparazioa, adin-taldeen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Soldatak ere altuagoak izaten dira adinak gora egin ahala eta 30 eta 34 urte bitarteko langileek 30 urtetik beherakoek baino 200 euro gehiago izaten dituzte hilean, batez beste (30 eta 34 urte bitarteko langileen batez besteko soldata 1297 eurokoa da). Baina emakume eta gizonen arteko soldata-arrakala adin-talde honetan ere agerikoa da. 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek, batez beste, 1209 euro izaten dituzte hilean; beren adineko gizonak, aldiz, 1383 euro jasotzen dituzte.

Euskadiko 16 eta 34 urte bitarteko langileek jasotzen dituzten batez besteko hileko soldata garbiak, sexuaren eta adin-taldeen arabera			
(€)	GUZTIRA	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak
16-29 urteko langileen batez besteko soldata	1093	1157	1025
30-34 urteko langileen batez besteko soldata	1297	1383	1209

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Aipatutako datu hauek Gazteen Euskal Behatokiak kaleratu duen "[Gazteak eta enplegua Euskadin 2017](#)" izeneko ikerketatik datoz. Ikerketa osoa [Gazteen Euskal Behatokiaren web orrian](#) aurki dezakezu.